

ZTIMULab ekintzak

Aldi baterako erakusketa ikastetxeetan: INGENIARITZARA HURBILTZEN

3 astez izango dira ikastetxean, denentzat ikusgai, Mondragon Unibertsitateko 6 proiektu ezberdin (bakoitza bere panelarekin). Helburua da ikasleek zientzia eta teknologiaren aplikazio praktikoa ezberdinak ikustea eta gertuko sentitzea.

- Lanketa DBH-ko maila guztientzat gomendatzen da

Nola prestatzen da?

1. Panelak ikastetxera eramatean, aurkezpen bat egingo zaie ikasleei
2. Erakusketa jartzen denetik denbora-tarte batera, klasean ikasleek gehien gustatu zaien proiektua bozkatu beharko dute, zergatiak adieraziz.



Aurkezpenerako gidoia guk emango dugu

Eskaleta. Ikastetxean

Denbora	Implementazioa
10 min	Irakasleak: panelak ZTIMULab txokoan kokatzean, aurkezpen txiki bat egingo du ikasleentzat, aldi baterako erakusketa zertan datzan azalduz
Aste 1	Erakusketa ikusgai egongo da guztientzat
1 h	Irakasleak ikasleak taldeka banatuko ditu eta talde bakoitzak paneletan agertzen den kontzeptu bati buruz informazioa aurkitu eta aurkezpen bat prestatu beharko du gainontzeko ikaskideentzat
1 h	Ikasleak: talde bakoitzak 10 minutuko aurkezpen bat egingo du gela guztiarentzat ikasgelan.

